

Existitzen ez den herria



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

“Ez den herrian sortu ginen, eta geu ere, esan gabe, konprenitzen da ez garena gara”, Joseba Sarrionandia.

Askotan, nire buruari galdetzen diot zer gertatu ote zen Alemaniako jendarteak nazismoaren ondorioak ezagutu zituenean, hau da, horrelako komunitate jantziak eta tolerantak nola onartu zuen, bat-batean, bere izenean pertsona ugari hiltzea.

Juan Irigoyenek, bere blogean, Gunter Andersen-ek 1956an idatzi zuena birgoratzen du: “Edozein matxinada aldeztu aurretik itzaltzeko, batez ere ez duzu era bortitzean jokatu behar. Metodo arkaikoak, hala nola Hitlerrek erabilitakoak, erabat zaharkituta daude. Egun, baldintzapen kolektibo indartsua baizik ez da sortu behar matxinadaren ideia bera jendearen burutik ere ez pasatzeko”. Eta horixe da gaurko errealitatean ikusten ari garena: genozidio baten aurrean ez gara gai ezta horren aurkako matxinada txiki bat antolatzeko ere, jendearen erantzuteko gaitasuna erabat deuseztatuta baitago.

Zer pentsatuko dute Gazan edo Kongon, hemendik ehun urtera, Euskal Herriak (existitzen ez den herria) genozidioen aurrean egin zuenari buruz? Egiten ditugun mobilizazioak gogoratuko al dituzte? Oraingo Gazako umeez, hemen-

Zer pentsatuko dute Gazan edo Kongon, ehun urtera, Euskal Herriak (existitzen ez den herria) genozidioen aurrean egin zuenari buruz?

dik hoge urtera bizirik baldin badaude, jakingo al dute Pirinioetako bi aldeetara dagoen herriak defendatu eta maitatu zituela, haiek gogoratu aurre egin bitartean?

Pesimista naiz. Nire ustez, hemendik urte batzuetara inork gutxik jakingo du euskal herritarrok zer egin genuen Gazako edo munduko beste sarraski batzuei aurre egiteko. Izan ere, azken finean, nazioarteko kontzertuan ez daukagu ahots propiorik: Sarrionandiak dioenez, ez garena gara.

Hala ere, gure ordezkariak txoko bat izan nahi dute Espainiako instituzioetan. Madrilgo Kongresuak –zirku kalapitatsu bihurtuta– euskal politikariek giroa pixka bat epeltzeko aukera ematen die, noizean behin bada ere, besteek elkarri irain egin bitartean. Errealitatea aldatzeko ez da

oso leku eraginkorra, baina, behintzat, hemengoek heziera ona erakusten dute.

Egia da, baita ere, existitzen ez den herriaren bozeramaleek gauza larriak entzun behar dituztela bertan. Esate baterako, Defentsa ministroak Errusiaren aurkako gerrari buruz iragarri du, besteak beste, gastu militarra igoko dutela 24.000 milioi eurora (NATOk exijitzen zuen BPGren %2 baino gehiago); edo, beste adibide bat: Europar Batasuneko beste estatuekin batera Espainiak sinatu duen “berehalako etenaldi humanitarioaren eskaera” Palestinarako. Ursula von der Leyen-ek eta Pedro Sánchezek, berriz, irribarrez argitu dute “etenaldia ez dela su-etena”; gainera, are larriagoa, Israeli armak saltzen jarraituko dute inolako lotsarik gabe.

Baina amets dezagun minutu bakar batez bada ere. Imajina dezagun gure ordezkari politikoak aipaturiko “baldintzapen kolektibo” gainditzeko gai direla eta hordago bat egiten diotela Sánchezen gobernuari: Madrilen ematen dioten babes parlamentarioari eusteko apustua igoko dutela, eta Israelekin harreman politiko eta ekonomikoak bertan behera uztea exijituko diotela. Agian, existitzen ez den herriak ez dauka hainbesteko indarra Israel estatu erraldoi eta krudelaren aurka aritzeko... baina saiatzea kolosala izango litzateke, ezta? ●

43.
LIZARDI
SARIA

o Euskarazko haur literatura sustatzeko.

o Lanak aurkezteko epea: 2024ko uztailaren 14a.

Informazio gehiago: www.zarautz.eus


ZARAUZKO UDALA


LIZARDI SARIA